

## **ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA**

### **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

**2023-2024 denboraldia**  
(2023ko urriaren 2tik 2024ko irailaren 29ra)

#### **9. astea (2024ko otsailaren 26tik martxoaren 3ra)**

*Gripe-birusaren zirkulazioak behera egiten jarraitzen du. COVID-19aren intzidentzia ere jaitsi da, eta honek, ABSk eragindako infekzioen moduan, egonkortzeko joera du azken asteetan.*


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 378,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (395,9/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak beherantz jarraitzen du eta bronkiolitisarena nahiko egonkor mantentzen ari da azken asteetan.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 51 lagin jagoleen % 72,5 baieztatu da, 3 SARS-CoV-2 (positibotasuna % 5,9), 3 gripe-birus (positibotasuna % 5,9) eta ABS bat (positibotasuna % 2,0) atzeman direlarik. 16 metapneumobirus eta 12 errinobirus ere detektatu dira.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 12,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (14,3/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 36 SARS-CoV-2, 53 gripe-birus eta 26 ABS erregistratu dira.

## AIA Lehen Mailako Arretan

### Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 378,3 kasukoa izan da (395,9/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 323,9/100.000 izan da Araban, 382,5/100.000 Bizkaian eta 396,6/100.000 Gipuzkoan.

**AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE**



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 1877,8 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 632,6 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute adin-talde guztietan, 5 urtetik beherako adin-taldean izan ezik.

**AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ESI gehienetan aurreko astearekin alderatuta.


**AIAREN intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**

ESI	Tasa 9. astea	Tasa 8. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	350,9	368,5	0,95 (0,87-1,04)
Arabar Errioxako ESI	613,5	613,5	1,00 (1,00-1,00)
Barakaldo-Sestaoko ESI	290,3	330,2	0,88 (0,76-1,01)
Barrualde-Galdakaoko ESI	399,7	434,2	0,92 (0,85-0,99)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	416,7	440,0	0,95 (0,88-1,02)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	380,3	394,0	0,97 (0,86-1,07)
Uribeko ESI	331,6	323,8	1,02 (0,92-1,14)
Bidasoako ESI	356,9	369,9	0,96 (0,82-1,14)
Debararrenako ESI	438,0	408,7	1,07 (0,91-1,26)
Debagoienuko ESI	270,5	350,2	0,77 (0,63-0,94)
Donostialdeako ESI	356,1	353,3	1,01 (1,09-0,93)
Goierrri-Urola Garaiaiko ESI	514,2	565,4	0,91 (0,80-1,03)
Tolosaldeako ESI	466,7	485,4	0,96 (1,13-0,82)

Gripe-sindromearen tasak behera egin du berriro aste honetan eta 6,0 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (8,1/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) nahiko egonkor mantendu da azken asteetan eta 270,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (263,4/100.000 aurreko astean).


**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**



## Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAREN sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIARako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 51 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 72,5 baieztatu dira. 3 SARS-CoV-2, 3 gripe-birus (AH1pdm09 bat eta 2 AH3) eta ABS bat atzeman dira. 16 metapneumobirus eta 12 errinobirus ere detektatu dira.

**AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoen arabera. 2023-2024, EAE**



Hiru arnas-birus nagusien, SARS-CoV-2, gripe-birusa eta ABS, positibotasunak nahiko egonkor daude % 10etik beherako balioetan (% 5,9, % 5,9 eta % 2,0, hurrenez hurren). Aipatzekoa da beste arnas-birusen detekzioen gorakada, batez ere metapneumobirusaren % 31,4ko (% 4,1 aurreko astean) eta errinobirusaren % 23,5eko (% 12,2 aurreko astean) positibotasunak.


**Positibotasunaren ehunekoak mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE**

	9. astea		8. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	3	5,9	1	2,0	238	19,4
SARS-CoV-2	3	5,9	1	2,0	71	5,8
ABS	1	2,0	2	4,1	90	7,3
Metaneumobirus	16	31,4	2	4,1	61	5,0
Parainfluenza	1	2,0	1	2,0	21	1,7
Adenobirus	4	7,8	0	0,0	30	2,4
Errinobirus	12	23,5	6	12,2	245	20,0
Urtaroko CoV	5	9,8	10	20,4	69	5,6

## AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


### Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorritzen direnak. AIAL tasa 12,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (14,3/100.000 aurreko astean), 11,8/100.000 emakumeetan eta 13,6/100.000 gizonetan.



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorako adin-taldean eman da 37,5 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherako adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 27,0 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute 14 urtetik gorako adin-taldeetan eta gora gazteenetan.

### AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




## AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasuna % 4,9an kokatu da aste honetan (% 9,4 aurreko astean) eta SARS-CoV-2arena, zeina azken asteetan % 10aren azpitik kokatu den modu egonkorrean, % 5,0koa izan da (% 3,7 aurreko astean). ABSren positibotasuna ere egonkor mantentzen da eta % 3,8an kokatu da (% 6,6 aurreko astean). Aste honetan erregistraturiko positibotasun altuenak metapneumobirusarena (% 20,0) eta errinobirusarena (% 15,0) izan dira.

### Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	9. astea		8. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	201	5,0	241	3,7	6383	9,9
Influenza	184	4,9	223	9,4	6014	19,9
ABS	159	3,8	197	6,6	5047	15,3

### Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE



## Arnas birusen detekzioak IMSn


Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 36 SARS-CoV-2, 53 gripe-birus eta 26 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 53 gripe-birusetatik, 37 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 10 A(H3), 5 A(H1)pdm09 eta bat B motakoa. 2023/40 astetik 5995 detekzio erregistratu dira, 5979 (% 99,7) A motakoak eta 16 (% 0,3) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1822 birusetatik, 413 (% 22,7) A(H3) eta 1409 (% 77,3) A(H1)pdm09 izan dira.

2023ko abenduaren 18tik, 119 SARS-CoV-2 andui sekuentziatu dira Euskadin. JN.1 intereseko aldaera da zirkulatzen duen ia bakarra, aztertutako 119 anduietatik 113 biltzen baititu. Intereseko beste lau aldaeren jarduera ia desagertu egin da. BA.2.86 aldaeraren andui bakarra aurkitu zen; EG.5, XBB.1.5 eta XBB.1.16 aldaerak, berriz, ez dira detektatu gure ingurunean.

Munduko egoera antzekoa da. OMEren datuek adierazten dute JN.1 dela nagusi aldi honetan (aztertutako sekuentzien % 88,2). Aldaera horren arriskuari buruzko azken txostena 2024ko urtarrilaren 9an egin zuen OMEk, eta osasun publikorako arrisku txikikotzat jo zuen.

**Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE**




## COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 9. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 3,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (5,2/100.000 aurreko astean); 3,8 gizonetan eta 3,8 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 16 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik<sup>1</sup> (19 ospitaleratu aurreko astean), 10 gizon eta 6 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 62,5 60 urtetik gorakoa zen.

<sup>1</sup> Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

**COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoaren eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE**



Urteko 9. astean, COVID-19 3 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (7 aurreko astean). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua ere 3 izan da, aurreko astean baino 4 gutxiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

**2024ko martxoaren 6an**

**Zaintza Epidemiologikoa  
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**